

AGINDUA, 1993ko ekainaren 1ekoa, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburuarena, industri aurriak egitasmoak erredaktatzeko eta/edo burutzeko dirulaguntzak arautzen dituen ekainaren leko 162/1993 Dekretuan aipatzen diren dirulaguntzak eskuratzeko eskabideak aurkezteko epea eta lekua finkatzen dituena.

5874

## Beste zenbait Iragarpen Ofizial

### BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

2938/1993 FORU AGINDUA, maiatzaren 28koa, Herrilan Sailarena, «Areitioko mendatean hirugarren bidea eraikitzeako egitasmoa» lanaren egiterapenak eragindako ondasun eta eskubideenak jendaurreratu eta jabegokentze espedientea hastea ebazten duena.

5875

## Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak

### LEHENDAKARITZA, LEGE ARAUBIDE ETA AUTONOMI GARAPENERAKO SAILA

1964

155/1993 DEKRETUA, ekainaren 1ekoa, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzkoa.

Euskal Autonomi Elkarteko Instituzioen eta beste izaki batzuren arauak eta ekintzak argitaratzeko bidea eskainiz Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak betetzen duen egitekoa berritu egin behar izaten behin eta berriro, une bakoitzean sortzen diren beharrei behar den bezalako erantzuna emango dien zerbitzu publikoa biztanleei eskaini ahal izateko.

Azaroaren 23ko 296/1988 Dekretuz egin eta EHAak gaurregun duen arauketa onartu zenetik lau urte igaro direnez eta ordutik hona hartu den esperientzia kontutan hartuz, beharrezkotzat jo da arau berriak egitea, argiagoak, aplikatzeko errazagoak izango direnak eta, oro har, egunkari ofiziala argitaratze-prozesua bizkortuko duten prozedura eta soporte informatikoak finkatuko dituzten arauak alegia.

Dekretu honen bidez, gaurregun indarrean dagoen sistema hobetu egiten da, arauak ulerkorragoak gelditzen dira, argitalpen-bideen prozeduraren erregimena erosoa goa bilakatzen da, Buletineko aleen laburpenari irizpide

ORDEN de 1 de junio de 1993, del Consejero de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, mediante la que se señalan el plazo y el lugar de presentación de solicitudes de las ayudas previstas en el Decreto 162/1993, de 1 de junio, por el que se regulan las ayudas para la redacción y/o ejecución de los proyectos de demolición de ruinas industriales.

5874

## Otros Anuncios Oficiales

### DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA

ORDEN FORAL 2938/1993, de 28 de mayo, del Departamento de Obras Públicas, por la que se señalan fechas para el levantamiento de las actas previas a la ocupación de los bienes y derechos afectados por la ejecución del «Proyecto de construcción del tercer carril del puerto de Areitio»

5875

## Disposiciones Generales del País Vasco

### DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA, REGIMEN JURIDICO Y DESARROLLO AUTONOMICO

1964

DECRETO 155/1993, de 1 de junio, sobre el Boletín Oficial del País Vasco.

La función que desempeña el Boletín Oficial del País Vasco dando publicidad a las normas y actos de las Instituciones de la Comunidad Autónoma, así como los de entidades diversas que han de ser objeto de inserción en el mismo, requiere una tarea de mejora permanente, a fin de proporcionar a los ciudadanos un servicio público que dé adecuada respuesta a las necesidades de cada momento.

Transcurridos cuatro años desde la aprobación de la actual regulación del Boletín, realizada mediante el Decreto 296/1988, de 23 de noviembre, y teniendo en cuenta la experiencia acumulada desde entonces, se ha estimado necesario acometer una nueva reglamentación más clara y sencilla en su aplicación y que establezca, con carácter general, la exigencia de la utilización de procedimientos y soportes informáticos que agilicen el proceso de edición del diario oficial.

Así pues, el presente Decreto mejora la sistemática del actualmente en vigor, simplifica su articulado, establece un régimen más cuidado del procedimiento de inserción, ordena con criterios más rigurosos el sumario

zehatzagoak aplikatzen zaizkio eta sistema hori aplikatzerakoan somatu diren akatsak zuzendu egiten dira.

Ondorioz, Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1993ko ekainaren 1ean egin zuten bilkuran aztertu eta onartu ondoren, haxe,

XEDATU DUT:

I. ATALBURUA: EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA

1. atala.- Egunkari Ofiziala.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria da, Euskal Autonomi Elkarteko buletin ofiziala eta beronetan argitaratzen dira ondoren aipatzen diren xedapenak, legeetan aipatzen diren kasuen barruan:

a) legeak, administrazioaren xedapenak eta instituzioen ekintzak.

b) beste instituzio batzuren xedapen eta ekintzak eta bai indarrean dauden legeetan ezartzen denaren arabera buletinean argitaratu behar diren partikularren iragarpenak ere.

2. atala.- Eraketa organikoa.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako Zuzendaritzari atxikitako administrazio-unitate bat da organikoki Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria. Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailaren egitura organikoa finkatzen duen apirilaren 30eko 286/1991 Dekretuko 8.3 atalean edo ordezkotza egin dezaten arauetan ezartzen diren egitekoak, Zuzendaritza horrek beteko ditu.

3. atala.- Aldizkotasuna.

Astegun guztietan argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria. Larunbatetan ez. Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako Zuzendaritzak aldatu dezake arau hau, argitara dadinaren beharrak kontutan hartuz.

4. atala.- Argitalpenak.

1.- Buletina argitaratzen deneko zenbaki bakoitzari, egun bat dagokio. Ezohizko arrazoiak egotea gertatuz gero, ezohizko zenbaki bat baino gehiago argitaratu ahal izango dira egun berean.

Zenbaki bakoitzak alezati bat baino gehiago izan ditzake. Era berean alearen gehigarriak ere argitaratu ahal izango dira, argitalpen-beharrak kontutan hartuta.

2.- Paperean egingo den argitalpenaz aparte, biztanlegoari zerbitzu ona eskaintzeko egokiak izan daitezen soporte teknikoetan ere egin ahal izango da argitalpena.

3.- Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako Zuzendariak finkatuko du zenbat ale argitaratu behar diren, aurrikusitako eskabideak edo beharrak kontutan hartuta.

5. atala.- Hizkuntza ofizialak.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko testuen hizkuntzak, euskara eta gaztelera izango dira eta bi hizkuntzak joko dira ofizialtzat eta autentikotzat.

de los números del Boletín y colma algunas lagunas apreciadas durante la aplicación de aquél.

Por todo lo cual, a propuesta del Consejero de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico, previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno, en su Sesión del día 1 de junio de 1993,

DISPONGO:

CAPITULO I: EL BOLETIN OFICIAL DEL PAIS VASCO

Artículo 1.- Diario Oficial.

El Boletín Oficial del País Vasco es el diario oficial de la Comunidad Autónoma, a través del cual se da publicidad, en los supuestos previstos en el ordenamiento jurídico a:

a) Las Leyes, disposiciones administrativas y actos de sus instituciones.

b) Las disposiciones y actos de cualesquiera otras instituciones y los anuncios de particulares que hayan de ser insertados en el mismo de acuerdo con la legislación vigente.

Artículo 2.- Configuración orgánica.

El Boletín Oficial del País Vasco se configura orgánicamente como unidad administrativa adscrita a la Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, que ejercerá las funciones previstas en el artículo 8.3 del Decreto 286/1991, de 30 de abril, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico o en las normas que en el futuro le sustituyan.

Artículo 3.- Periodicidad.

El Boletín Oficial del País Vasco se publicará todos los días hábiles salvo los sábados. Esta regla podrá excepcionarse por el Director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento en atención a las necesidades de publicación.

Artículo 4.- Edición.

1.- El Boletín se editará en números diarios. Cuando razones excepcionales así lo aconsejen, se podrán publicar en una misma fecha uno o más números extraordinarios.

Cada número constará de uno o varios fascículos. Asimismo, en atención a las necesidades de publicación se podrán editar suplementos.

2.- Además de la edición en papel impreso, se podrán realizar ediciones en los soportes técnicos que resulten adecuados para el mejor servicio al público.

3.- El Director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento determinará la tirada del Boletín Oficial del País Vasco atendiendo a la demanda o necesidades que se prevean.

Artículo 5.- Lenguas oficiales.

El texto del Boletín Oficial del País Vasco se publicará en euskera y castellano y tendrá la consideración de oficial y auténtico en ambos idiomas.

## II. ATALBURUA: EGITURA.

## 6. atala.- Laburpena.

1.- Aldizkari bakoitzean jasotzen diren xedapenen laburpena izango du Aldizkariak hasieran orrialde eta guzti eta, behar izanez gero, xedapena jasotzen duen faszikuloa, hurrengo atalean aditzera ematen den hurrenkeraren arabera.

2.- Buletin batek suplementoak izatea gerta dadi-nean, aditzera eman beharko da hori argitaratzen den xedapenaren testuaren amaieran.

## 7. atala.- Sekzioak.

1.- Honako sekzio hauetan bananduko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren edukia:

I. Sekzioa. Xedapen Orokorrak.

II. Sekzioa. Agintariak eta Langilegoa.

Hiru subsekzio izango ditu sekzio honek:

a) Izendapenak, egoerak eta gorabeherak.

b) Administrazio Publikoetan hutsik dauden lanpostuak betetzeko azterketa eta merezimendu bidezko lehiaketetarako deialdiak eta gorabeherak.

c) Administrazio Publikoetako langileak prestatu eta trebatzeko ikastaroetarako deialdiak.

III. Sekzioa. Bestelako xedapenak.

IV. Sekzioa. Zuzentza Administrazioa: ediktuak, jakinarazpenak, rekisitoriak eta Epaitegi eta Auzitegien iragarpenak.

V. Sekzioa. Iragarpenak.

Hiru subsekzioetan sailkatuko dira iragarpenak:

a) Obra enkanteak eta lehiaketak, zerbitzuak eta hornidurak.

b) Beste iragarpen ofizial batzuk.

c) Pribatuaren iragarpenak.

2.- Xedapena eman duen organua kontutan hartuz multzoak eginez gauzatuko da testuen argitalpena sekzio bakoitzaren barruan. Idazpurua jarriko zaie aurrean eta arauz finkatuta dagoen hierarkiaren hurrenkeraren arabera egingo dira multzoak.

## 8. atala.- Aurkibideak.

1.- Argitaratu diren xedapenen aurkibidea eratuko da urtero.

2.- Era berean, zatika ere argitaratu ahal izango dira xedapen orokorren aurkibideak.

## III. ATALBURUA: AGIRIAK BULETINEAN SARTZEKO PROZEDURA

## 9. atala.- Baldintzak.

Atalburu honetan finkatzen diren izapideak eta formalitateak bete beharko dira, xedapenak, ekintzak eta iragarpenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian sartu ahal izateko.

## 10. atala.- Hasiara ematea.

## CAPITULO II: ESTRUCTURA.

## Artículo 6.- Sumario.

1.- Cada número del Boletín irá precedido de un sumario que expresará las disposiciones contenidas en el mismo, con indicación de la página y, en su caso, fascículo en que comience la inserción, según el orden que se señala en el artículo siguiente.

2.- En el supuesto de que un Boletín vaya acompañado de suplementos, se hará constar esta circunstancia al final del texto de la disposición publicada a la que afecte.

## Artículo 7.- Secciones.

1.- El contenido del Boletín Oficial del País Vasco se distribuye en las siguientes secciones:

Sección I. Disposiciones Generales

Sección II. Autoridades y Personal

Esta sección constará de tres subsecciones:

a) Nombramientos, situaciones e incidencias.

b) Convocatorias e incidencias de oposiciones y concursos para la provisión de vacantes de las Administraciones Públicas.

c) Convocatorias de cursos de formación y perfeccionamiento del personal al servicio de las Administraciones Públicas.

Sección III. Otras disposiciones

Sección IV. Administración de Justicia: Edictos, notificaciones, requisitorias y anuncios de los Juzgados y Tribunales

Sección V. Anuncios

Estos se agruparán en tres subsecciones:

a) Subastas y concursos de obras, servicios y suministros.

b) Otros anuncios oficiales.

c) Anuncios particulares.

2.- Dentro de cada sección, la inserción de los textos se realizará agrupándolos en razón del órgano del que procedan, precedidos del epígrafe correspondiente, teniendo en cuenta el orden de jerarquía normativa.

## Artículo 8.- Indices.

1.- Anualmente se elaborará un índice de las disposiciones publicadas.

2.- Asimismo, se podrán editar índices progresivos de las disposiciones de carácter general.

## CAPITULO III: PROCEDIMIENTO DE INSERCIÓN.

## Artículo 9.- Requisitos.

La inserción de las disposiciones, actos y anuncios en el Boletín Oficial del País Vasco requerirá la previa cumplimentación de los trámites y formalidades previstos en este Capítulo.

## Artículo 10.- Iniciación.

1.a) atalean aipatzen diren kasuetan Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendariak emango dio hasiera sartze-prozedurari ofizioz eta, 1.b) atalean aipatzen diren kasuetan, horretan interesa izan dezaten organuek eta pribatuek eskatuta emango zaio hasiera.

*11. atala.*– Buletinean sartzeko baimena.

1.– Buletinean argitaratzeko bidali daitezten xedapen, ekintza eta iragarpenen testuekin batera, Buletinean sartzeko baimena bidali beharko da, horretarako ahalmena duenak eta, ondorio hauetarako, izenpea erregratuta duenak izenpetuko du baimen hori.

2.– Buletinean sartzeko-baimena, originalean bertan jarriko da xedapena eman duenaren izenpearen alboan eta honako formula hau erabiliko da: «Sartu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian». Horietaz aparte, baimena ematen duen pertsonaren kargua eta bere nortasuna aditzera emango duten izen-abizenak ere eman beharko dira ezagutzera. Eta gainera testuaren orrialde guztietan bere rubrika jarri beharko du.

3.– Buletinean sartzeko baimena eman dezana izango da, xedapen, ekintza edo iragarpenaren autentizitatearen arduraduna.

*12. atala.*– Eskuduntza.

1.– Ondoren aipatzen diren agintari hauek izango dute Euskal Autonomi Elkartekeko Administrazio Orokorrean sartzeko-baimena emateko ahalmena:

a) Jaurlaritzako Idazkariak, legeetan eta lege indarra duten xedapen eta ekintzetan.

b) Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendariak, Lehendakariaren eta Jaurlaritzaren ekintza eta akordioetan eta Sail bateko baino gehiagok batera emandako xedapenetan.

c) Sailburuek, Zerbitzu Zuzendariak eta baliokidekoak diren organuek, beren Sailtako eskuduntzapekoak diren xedapenetan eta ekintzetan.

d) Aurreko letretan aipatu diren agintarien ordezkotza egin dezatenek, hauetakoren bat ez egotea, kargua hutsik egotea edo gaisorik egotea gertatuz gero.

2.– Beste organu, instituzio eta izaiki batzuk eman ditzaten xedapenak eta ekintzak Buletinean sartzeko baimena, horretarako ahalmena duten edo adierazitako delegazioa dutenek emango dute funtzionamendurako dituzten barne-arauen arabera edo, horiek ezean, ahalmen edo delegazioa dutenen ordezkotza izan dezatenek.

*13. atala.*– Baimendun izenpeak erregistratzea.

1.– Argitaratzeko bidali daitezten testuen autentizitatea ziurtatu ahal izateko, sartzeko-agindua emateko ahalmena duten pertsonen izenpean erregistroa eramango da Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzan.

2.– Horretarako ahalmena duten agintari eta pribatuek, beren izenpeak inskribatu beharko dituzte Erregistro horretan, Zuzendaritza horretan dohainik emango den fitxa bete beharko dutela horretarako. Fitxa horretan honako datu hauek jaso beharko dira gutxienez:

El procedimiento de inserción se iniciará de oficio por la Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento en los supuestos del art. 1.a), y a solicitud de los órganos y particulares interesados en los casos previstos en el art. 1.b).

*Artículo 11.*– Autorización de inserción.

1.– Los textos de las disposiciones, actos y anuncios que se envíen para su publicación en el Boletín contendrán una autorización de inserción, firmada por quien esté facultado para ello y tenga, a estos efectos, registrada su firma.

2.– La autorización de inserción se plasmará en el propio original, junto a la firma de quien lo haya dictado, mediante la fórmula «Insértese en el Boletín Oficial del País Vasco», con indicación expresa del cargo y el nombre y apellidos que identifiquen a la persona que lo autorice, que deberá rubricar, además, todas las páginas del texto.

3.– Quien autorice la inserción se hará responsable de la autenticidad de la disposición, acto o anuncio.

*Artículo 12.*– Competencia.

1.– La facultad para autorizar la inserción en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco se atribuye a las siguientes autoridades:

a) Al Secretario del Gobierno para las leyes y las disposiciones y actos con fuerza de Ley.

b) Al Director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento para las disposiciones, actos y acuerdos del Lehendakari y del Gobierno y para las disposiciones dictadas conjuntamente por varios Departamentos.

c) A los Consejeros y Directores de Servicio u órganos análogos para las disposiciones y actos de la competencia de sus Departamentos.

d) A quienes suplan a las autoridades señaladas en las letras anteriores, en caso de ausencia, vacante o enfermedad.

2.– La autorización de inserción de las disposiciones y actos emanados de otros órganos, instituciones y entidades se realizará por quienes tengan atribuida dicha facultad o les sea delegada expresamente, conforme a sus propias normas internas de funcionamiento, o, en su defecto, por quienes tengan conferida la representación de los mismos.

*Artículo 13.*– Registro de firmas autorizadas.

1.– A fin de comprobar la autenticidad de los textos que se remitan para su publicación, en la Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento se llevará un Registro de firmas de las personas facultadas para autorizar la inserción.

2.– Las autoridades y particulares facultados al efecto deberán inscribir su firma en el citado Registro, mediante la cumplimentación de la correspondiente ficha, que se suministrará de forma gratuita por la citada Dirección. En la misma deberán constar, al menos, los siguientes datos:

- a) duen kargua,
- b) izena eta abizenak,
- c) erabili ohi duen izenpea,
- d) izenpearen kreditapena, hurrengo atalean aditzera ematen denaren arabera.

*14. atala.*– Izenpearen kreditapena.

1.– 12.1 atalean aipatzen diren eta Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorreko agintarien izenpeen kreditapena, honako era honetan egingo da:

a) Jaurlaritzako Idazkariaren izenpea, Lehendakariak. Honena eta gainontzeko Sailburuena, Idazkariak,

b) agintaritzaren gainontzeko pertsonen firmak, bakoitza hangoa deneko Sailburuak.

2.– Beste organu eta instituzio publiko batzuk emandako xedapenak eta ekintzak sartzeko baimena emateko ahalmena dutenen izenpeen kreditapena, ihar-dute-arauetan ezartzen denaren arabera egingo da. Gaiari buruz finkatutakorik ez egotea gerta dadinean, honako era honetan egingo da kreditapena:

a) organu unipertsonalen izenpea, izenpea kreditatuta izan dezan goragoko agintariak,

b) organu kolegiatuetako kideen izenpea, organu bakoitzeko idazkariak eta, honena, lehendakariak.

3.– Pribatuen izenpea, notariak kreditatuko du.

4.– Buletinean argitaratzeko, xedapenak, ekintzak eta iragarpenak bidali ditzaten organu, instituzio eta izaikiek, sartzeko baimena emateko ahalmena duten agintariengan eman daitekeen edozein eratako indargabe-tzearen berri eman beharko dute.

5.– Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako Zuzendariak, sartzeko baimena emateko ahalmena duten pertsonen izenpeak erregistratzeari ukoa emango dio, aurreko lerroaldietan aipatu diren arauak ez betetzea gerta dadinean. Fitxa bidali zen egunetik hasita, 3 hilabeteko epea igaro eta adierazitako ebazpanik eman gabe egotea gertatuz gero, izenpea erregistratzeko eskabidea onartutzat joko da.

*15. atala.*– Argitara dadinaren eskabidea.

Xedapenak, ekintzak eta iragarpenak eman ditzaten organu, instituzio eta izaikiek, idatziz eta behar hainbateko aurrerapenez egin beharko diote argitara dadinaren eskabidea Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako Zuzendariari. Honako hauek jaso beharko dira eskeidazkian:

a) edukiaren berri emango duen idazpurua,

b) argitaratzeko legezko epea egon dadinean, hori ezartzen duen araua aipatu beharko da,

c) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharra finkatu dezan xedapeneko aginduak.

*16. atala.*– Originala bidaltzea.

a) El cargo que desempeña.

b) El nombre y apellidos.

c) La firma habitual.

d) La acreditación de la firma, en la forma que se señala en el artículo siguiente.

*Artículo 14.*– Acreditación de firmas.

1.– La acreditación de la firma de las autoridades de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco señaladas en el art. 12.1 se realizará de la siguiente forma:

a) La firma del Secretario del Gobierno por el Lehendakari y la de éste y los demás Consejeros por aquél.

b) La firma de las restantes autoridades por el titular del Departamento al que pertenezcan.

2.– La acreditación de las firmas de quienes tengan la facultad de autorizar la inserción de las disposiciones y actos emanados de otros órganos e instituciones públicas se realizará de conformidad con lo previsto en sus normas de funcionamiento. En defecto de previsión alguna al respecto la firma se acreditará:

a) La de los órganos unipersonales por el superior jerárquico que tenga registrada su firma.

b) La de los miembros de los órganos colegiados será acreditada por el secretario de los mismos y la de éste por el presidente.

3.– La firma de los particulares será acreditada notarialmente.

4.– Los órganos, instituciones y entidades que envíen disposiciones, actos y anuncios al Boletín para su publicación vienen obligados a comunicar cualquier revocación que se produzca en las autorizaciones otorgadas a miembros de los mismos para disponer inserciones.

5.– El Director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento denegará el registro de las firmas de las personas facultadas para autorizar la inserción cuando no se cumplan las reglas previstas en los párrafos anteriores. En defecto de resolución expresa en el plazo de 3 meses desde la remisión de la ficha, se entenderá estimada la solicitud de registro de firma.

*Artículo 15.*– Solicitud de publicación.

Las órganos, instituciones y entidades de los que emanen las disposiciones, actos y anuncios, solicitarán por escrito, con suficiente antelación, a la Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento su publicación en el Boletín. En el escrito de solicitud se deberá indicar:

a) El epígrafe que anticipe su contenido.

b) Si existe plazo legal para su publicación, con expresión, en este supuesto, de la norma que lo establezca.

c) Los preceptos de la norma que determinen, en su caso, la publicación obligatoria en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Artículo 16.*– Remisión del original.

Testu originala bidali beharko da eskeidazkiarekin batera, dekretu honetako 11.2 atalean ezartzen denaren arabera. Testu originalak, mekanografiatuta edo kimika, elektronika mailako edozein prozeduraz inprimatuta egon beharko du. Era berean, testu originala ere aurkeztu beharko da.

*17. atala.*– Medio informatikoen erabilpena.

1.– Aurreko atalean esan denaren kaltetan gabe, Euskal Autonomi Elkarteke Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko organuek, artez bidaliko dituzte Buletinera argitaratzeko testuak, horretarako finkatuta dagoen protokoloaz baliatuz. Gainontzeko organu, instituzio eta izaikiek, diska magnetikoz bidali beharko dituzte.

2.– Informatika bidez bidali daitezen testuek eta originalek, berdinak izan beharko dute.

*18. atala.*– Akatsen zuzenketa.

Bidali daitezen xedapenek, ekintzek eta iragarpenek, aurreko ataletan aipatzen diren baldintzak ez betetzea gertatuz gero, jaso diren akatsak 10 eguneko epearen barruan zuzendu ditzala eskatuko dio Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaria organu bidaltzaileari, honako ohar eginez, hau da, zuzenketa hori ez egitea gertatzen bada, ez dela argitaratuko agiria eta, beste gabe, agirigorde-tegiratu egingo dela.

*19. atala.*– Lehenetasuna.

1.– Xedapenak, ekintzak eta iragarpenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian sartzeko lehenetasun-hurrenkera, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak finkatuko du, honako hauek kontutan hartuz: duen garrantzia, legezko epeak betetzea eta agiria hartu deneko hurrenkera kronologikoa.

2.– Edozein eratako zirkunstantziren bat dela medio, argitara dadineko eskabidea egin deneko egunean argitaratzea ezinezkoa dela eta nahiko atzerakizun handia izango dela gertatuz gero, agiria bidali duenari horren berri emango dio Buletinak.

*20. atala.*– Argitalpenari ukoa ematea.

1.– 18. atalean ezartzen dena kontutan hartzen baldin bada ere, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaria, 1.b) atalean aipatzen diren xedapenak, ekintzak eta iragarpenak argitaratzeari ukoa eman ahal izango dio adierazitako erabakiz eta horren zergatiak emanaz. Dekretu honetan ezartzen diren baldintzak bete ez daitezenean jokatuko da era horretan.

2.– Adierazitako erabakirik ez ematea gertatuz gero, argitalpen-eskabideari ukoa eman zaiola ulertuko da, eskabidea egin zen egunetik hasita 3 hilabete igaro ondoren xedapenak, ekintzak eta iragarpenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ez argitaratzea gerta dadinean.

*21. atala.*– Isilpekotasuna.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko bidali daitezen testuak, isilpekoak izango dira eta ezin eman ahal izango da horiei buruzko inolako berririk, eman zuen organuaren adierazitako baimenik gabe.

Al escrito de solicitud se acompañará el texto original, en la forma que se establece en el artículo 11.2 del presente Decreto, mecanografiado o impreso por cualquier procedimiento químico, mecánico o electrónico. Asimismo, se adjuntará una fotocopia del mismo.

*Artículo 17.*– Utilización de medios informáticos.

1.– Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo anterior, los órganos de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma transmitirán directamente al Boletín los textos a publicar, por medio del protocolo informático implantado a tal efecto. Los demás órganos, instituciones y entidades los enviarán en discos magnéticos.

2.– Los textos remitidos por medios informáticos deberán ser idénticos a los originales.

*Artículo 18.*– Subsanación de defectos.

Cuando las disposiciones, actos y anuncios que se envían no cumplan los requisitos establecidos en los artículos anteriores, la Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento requerirá al órgano remitente para que, en un plazo de 10 días, subsane los defectos que se hayan apreciado, con indicación de que, si así no se hiciera, no se procederá a la publicación, archivándose sin más trámite la solicitud.

*Artículo 19.*– Prioridad.

1.– El orden de prioridad de la inserción en el Boletín Oficial de País Vasco de las disposiciones, actos y anuncios se establecerá por la Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento en atención a su importancia, al vencimiento de plazos legales y al orden cronológico de recepción.

2.– Cuando por cualquier circunstancia no fuera posible atender a la publicación en las fechas solicitadas, previéndose un retraso considerable, el Boletín Oficial del País Vasco comunicará tal hecho a quien lo haya enviado.

*Artículo 20.*– Denegación.

1.– No obstante lo dispuesto en el artículo 18, el Director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento podrá denegar, mediante resolución expresa y motivada, la publicación de disposiciones, actos y anuncios previstos en el artículo 1.b) con respecto a los cuales no se cumplan los requisitos establecidos en este Decreto.

2.– En defecto de resolución expresa, se entenderá desestimada la solicitud de publicación si transcurrido 3 meses desde la misma no se hubiera procedido a la inserción de las disposiciones, actos y anuncios en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Artículo 21.*– Reserva.

Los textos que se envían al Boletín Oficial del País Vasco tendrán carácter reservado, no pudiendo facilitarse noticia alguna acerca de ellos sin autorización expresa del órgano del que procedan.

*22. atala.*— Gordetzea eta zaintzea.

Buletinaren zenbaki bakoitzean argitaratutako originalak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren esku egongo dira, argitaratu zen egunetik hasi eta sei hilabete epeaz. Epe hori bete dadinean, Eusko Jaurlaritzako Artxibategi, Liburutegi eta Agiripaper Zerbitzura bidali beharko dira, honek zaindu eta gorde ditzan.

## IV. ATALBURUA: HUTSEN ZUZENKETA.

*23. atala.*— Hutsak.

Xedapen, ekintza edo iragarpenen bat argitaratzean hutsen bat egin eta honek agiriaren edukia aldatzea ekarri dezanean, beheralaxe argitaratuko da berriro, oso-oso edo behar den zatia, egin beharreko zuzenkete kin batera.

*24. atala.*— Zuzenketa.

1.— Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako Zuzendariak egingo du argitalpenaren gai izan diren agiriak sartzerakoan egin diren tipografia edo inpresio mailako hutsen zuzenketa, nahiz ofizioz, nahiz organu edo izaiki interesdunaren eskabidez. Agiriaren edukia aldatzea edo edukiari buruzko zalantzak sortzea gerta dadinean egingo dira zuzenketa horiek. Xedapena edo ekintza burutu duen organuari, zuzenketa horien berri emango zaio berehala.

2.— Argitaratzeko bidali den testuan eman baldin badira hutsak, honako era honetan egingo da zuzenketa:

a) Kontestuak argi eta garbi aditzera ematen dituen eta xedapen, ekintza edo iragarpenen esanahia aldatu ez, baina, agiangok okerbideak alboratu ahal izateko, horien aldaketa egitea komenigarritzat jo dadineko hutsak edo omisio materialak, Buletinean sartzeko agindua eman zuten organuek zuzendu beharko dituzte, testua edo behar den testu-zatia berriro Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian sar dadila eskatuko dutela, beharrezkoak diren zuzenketa eta guzti.

b) Kontestuak argi eta garbi ezagutzera eman ez dituzan hutsak edo omisioak eta, horiek zuzentzeak, xedapen, ekintza edo iragarpenaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzeko arriskua egon dadinean, maila bereko xedapen edo ekintzaz zuzenduko dira.

V. ATALBURUA: BULETINAREN HARPIDETZA  
ETA BULETINA SALTZEA*25. atala.*— Eskuratzeko moduak.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, harpidetza eginez edo zenbaki bat artez erosiz eskuratu ahal izango da.

*26. atala.*— Harpidetza.

1.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren harpidetzaren iraupena urtebetekoa izango da eta urte osorakoa. Hala ere, ekainaren 1a baino geroago jaso daitezten harpidetza-eskabideak, urteko bigarren sehilabetekorako formalizatu ahal izango dira.

2.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarira bideliko diren harpidetza eskabideekin batera, dagokion diru-zenbatekoa bidali beharko da.

*Artículo 22.*— Conservación y custodia.

En el Boletín Oficial del País Vasco se conservarán los originales de cada número durante el plazo de seis meses a partir de la fecha de su publicación. Transcurrido dicho plazo se remitirán los originales al Servicio de Biblioteca, Archivo y Documentación del Gobierno Vasco, para su custodia y conservación.

## CAPITULO IV: CORRECCION DE ERRORES.

*Artículo 23.*— Erratas.

Si alguna disposición, acto o anuncio apareciese publicado con erratas que alteren o modifiquen su sentido, será reproducido inmediatamente en su totalidad o en la parte necesaria con las debidas correcciones.

*Artículo 24.*— Corrección.

1.— La Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento rectificará de oficio o a instancia del órgano o entidad interesado los errores tipográficos o de impresión que se produzcan en la inserción de los textos publicados, siempre que supongan alteración o modificación del sentido de las mismas o puedan suscitar dudas al respecto. De dichas correcciones se dará cuenta inmediata al órgano del que provenga la disposición o acto.

2.— Cuando se trate de errores producidos en el texto remitido para su publicación, su rectificación se realizará del modo siguiente:

a) Los meros errores u omisiones materiales que se infieran claramente del contexto y no constituyan modificación o alteración del sentido de las disposiciones, actos o anuncios, pero cuya rectificación se estime conveniente a fin de evitar posibles confusiones, se salvarán por los órganos que hayan ordenado su inserción, instando la reproducción en el Boletín Oficial del País Vasco del texto o la parte necesaria del mismo con las debidas correcciones.

b) Los errores u omisiones que no se deduzcan claramente del contexto y cuya rectificación pueda suponer una real o aparente modificación del contenido o sentido de la disposición, acto o anuncio, se salvarán mediante disposición o acto del mismo rango.

CAPITULO V: SUSCRIPCION  
Y VENTA DE EJEMPLARES.*Artículo 25.*— Modalidades de adquisición.

El Boletín Oficial del País Vasco se podrá adquirir mediante suscripción o compra directa de ejemplares sueltos.

*Artículo 26.*— Suscripción.

1.— Las suscripciones al Boletín Oficial del País Vasco serán por años naturales indivisibles. No obstante, las peticiones de alta recibidas con posterioridad al 1 de junio se podrán formalizar por el semestre restante.

2.— Las solicitudes de alta, dirigidas al Boletín Oficial del País Vasco irán acompañadas del importe correspondiente.

3.- Harpidetzaren ordainketak, aurrez egingo dira.

27. atala.- Banaketa Ofiziala.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak, instituzio mailan izen handia duela, Administrazioan duen posizioa edo argitalpenak trukatzeko direla elkarren artean kontutan hartuz, finkatu daitezkeen organu, instituzio eta izaikientzako izango diren Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren banaketa ofizialaren ardura bere gain hartuko du.

ALDIBATERAKO XEDAPENAK

*Lehenengoa.*- Indargabetze Xedapenean ezarriko denaren kaltetan gabe, dekretu hau indarrean jarri baino lehen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarira bidali zirenen xedapen, ekintza eta iragarpenen argitalpen-eskabideak, lehendik finkatuta zeuden arauen pean egongo dira.

*Bigarrena.*- Dekretu hau indarrean jartzean, agiriak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian sartze-baimena emateko ahalmena izan eta izenpea behar den bezala erregistratuta izan dezaten pertsonak, ez dute izapide hori berririo egin beharrik izango.

INDARGABETZE XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen azaroaren 23ko 296/1988 Dekretua indargabetuta gelditzen da.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*- Dekretu honetan finkatzen ez direnei dagozkienetan, Herri Administrazioen Lege Jaurbideari eta Guztientzako Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezartzen direnak aplikatuko dira.

*Bigarrena.*- Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailburuari esku ematen zaio, dekretu hau garatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

*Hirugarrena.*- Dekretu hau, 1993ko uztailaren 1ean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1993ko ekainak 1.

Lehendakaria,  
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lehendakaritza, Lege Araubide  
eta Autonomi Garapenerako Sailburua,  
JOSEBA M. DE ZUBIA ATXAERANDIO.

3.- El pago de la suscripción será siempre por adelantado.

*Artículo 27.*- Distribución Oficial.

La Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento se hará cargo de la distribución oficial del Boletín Oficial del País Vasco a favor de los órganos, instituciones y entidades que se determinen por Resolución de su titular en atención a los criterios de relevancia institucional, posición en la Administración o reciprocidad con respecto a sus publicaciones.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Primera.*- Sin perjuicio de lo dispuesto en la Disposición Derogatoria, las solicitudes de publicación de disposiciones, actos y anuncios en el Boletín Oficial del País Vasco remitidas con anterioridad a la entrada en vigor del presente Decreto se registrarán por la normativa precedente.

*Segunda.*- Las personas facultadas para autorizar la inserción en el Boletín Oficial del País Vasco que tengan, a la entrada en vigor del presente Decreto, debidamente registrada su firma no deberán cumplimentar, de nuevo, dicho trámite.

DISPOSICION DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 296/1988, de 23 de noviembre, por el que se regula el Boletín Oficial del País Vasco.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*- En lo no previsto en el presente Decreto se aplicará la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Segunda.*- Se autoriza al Consejero de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico a dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo del presente Decreto.

*Tercera.*- El presente Decreto entrará en vigor el día 1 de julio de 1993.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 1 de junio de 1993.

El Lehendakari,  
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Presidencia, Régimen Jurídico  
y Desarrollo Autonómico,  
JOSEBA M. DE ZUBIA ATXAERANDIO.